

# Gatazken konponketa gizakietan eta beste primateetan

Eluska Aizpurua Sanz  
Psikologoa

Animalien jokaera erasokorrari buruz asko ikertu den arren, hauek agresioaren ondorio ezkorrak gutxitzeko edota ekiditeko garatu dituzten baketze-mekanismoen inguruko datuak urriak dira. Lan honetan agresio mota ezberdinen sailkapena egiten da. Ondoren, primateek erabiltzen dituzten hainbat baketze-mekanismoen definizioa eta adibideak aurkezten dira. Azkenik, gatazken konponketa eta enpatiar dagokionez aurkitu diren sexu diferentzien errebisio bat egin, gizakietan enpatia neurtzeko erabiltzen diren tresnak aztertu eta sexu arteko ezberdintasun horiek azaltzen dituzten arrazoi posibleak proposatzen dira.

Aggressive behaviour in animals has been largely investigated, yet the data available on the mechanisms they have developed to cope with the negative effects of aggression is scarce. In this paper, a classification of different types of aggression is done, followed by definitions and examples of various peacemaking mechanisms that primates use. Then, the data available on sex differences regarding conflict resolution and empathy is revised, the procedures to measure empathy in humans analysed and possible reasons for such sex differences proposed.

## 1. Sarrera: Jokaera erasokorraren sailkapena<sup>1</sup>

Agresioa “beste banako bati kalte fisikoa eragiteko asmoz burutzen den” edota “beste banakoari min egitea helburu duen” jokaera bezala definitua izan da (Fedigan, 1982: 72). Animalia baten jokaerek zer helburu duten jakitea, ordea, oso zaila edo ezinezkoa gertatzen da askotan. Horregatik, maiz ‘jokaera agonistikoa’ (*agonistic behavior*) hitza erabili ohi da, ‘agresioa’ (*aggression*) hitzaren ordez. Gatazka egoerekin erlazionaturiko edozein jokaera, asertiboa zein sumisiozkoa, agonistiko bezala definitzen da eta era ezberdinetan ager daiteke; hala nola: eraso moduan, defentsa moduan, e.a. (Wilson, 1975; Lauer, 1992).

Jokaera erasokor mota ezberdinen inguruan egin diren sailkapenak ugariak badira ere, aipatzekoa da Moyer-ek (1968, 1976) egindakoa. Honek sei agresio mota bereizten ditu:

a) Predarien arteko agresioa (*predatoria*): animalia batek bere harrapakinarekiko agertzen duen jokaera erasokorra da eta, beraz, espezie ezberdineko animalien artean izan ohi da.

b) Arren arteko agresioa: espezie bereko arren artean gertatzen da eta gizarte moduko antolakuntza duen animalia-talde anitzek aurkezten du. Agresio mota hau hainbat faktorek eragin dezakete; hala nola: espezie bereko ar arrotz baten presentziak, emeak lortzearren edo janariaren ustiaketagatik, zein dominantzia soziala eskuratzearen egoten diren lehiek. Dena dela, agresio mota hau oso modu erritualizatuan agertzen da eta jokaera erasokor bortitzak erabat ezohizkoak dira.

d) Beldurrak eragindako agresioa: banakoak saihestezina den arrisku bat topatzean agertzen du eta, aurreko kasuetan ez bezala, ihes egiteko saiakerak ere aurkezten ditu.

e) Asaldatze/Narritatze agresioa (*irritativa*): Estimulu ezatsegin batek eragiten du eta beste agresio moduetatik bereizten duena zera da: erasotuak izan daitezkeen subjektuak ugariak direla; hala nola: sexu bereko zein aurkako sexuko espezie bereko kide bat, beste espezie bateko animalia bat edo izaki bizigabe bat.

f) Amek erakusten duten agresioa (*agresión maternal*): emeek beren kumeak defendatzeko helburuarekin aurkezten duten edozein agresio mota da.

g) Sexuarekin erlazionatutako agresioa: sexu-harremanen bilaketarekin zerikusia duten estimuluek eragiten dute eta, gizakiok (*Homo sapiens sapiens*) modu konplexuagoan aurkezten dugun arren, beste animalia espezieetan ere agertu ohi da.

Moyer-en sailkapen honek hainbat arazo aurkezten ditu, izan ere kategoria ezberdinak ezartzeko erabiltzen dituen irizpideak ez baitaude batere argi eta hauek ez dira elkar-barneragaitzak. Hori dela eta, beste autore batzuek sailkapen berriak egin dituzte (e.b.: Reis, 1971, 1974; Huntingford, 1984; Usrin, 1981; Valzelli, 1983; Brain, 1981, 1984; e.a.).

---

1. Joserra, Aitzi eta, berezi-bereziki, Eduri, inspirazio, laguntza eta konfidantza iturri izateagatik. Hiruroi mila esker.

Hauek guztiak azaltzeak luze joko lukeenez, Brain-ena soilik aurkeztuko da jarraian, izan ere: Moyer-ena baino laburragoa da; espezie kopuru handi bat erabiliz burututako ikerketetan oinarritzen da; eta agresio mota ezberdinak, duten funtzioaren arabera bereizten dira.

a) Gatazka soziala: lurralde bat, janaria edota sexukide bat lortzeko gertatzen diren jokaera erasokorrak hartzen ditu barne. Ugaltzeko arrakastarekin lotuta daude eta espezie bereko arren artean agertu ohi dira, oso modu erritualizatuan.

b) Jokaera autodefentsiboa: banakoak, ihes egitea zaila denean, bere burua predarien zein espezie bereko kideen erasoetatik babesteko azaltzen dituen jokaera erasokorrak dira.

d) Defentsa parentala: kumeak eta hauek aurkitzen diren lekua (kabia, e.b.), animalia arrotzengandik babesteko egiten diren eraso eta mehatxuak hartzen ditu barne. Aurrekoan bezala, kasu honetan ere ez dira jokaera hauek inhibitzen dituzten mekanismoak agertzen eta espezie bereko zein ezberdineko animalien artean izan daitezke.

## **2. Jokaera erasokorraren balio egokitzaila eta alderdi negatiboak**

Gure gizartean jokaera erasokorra (*agonistic behavior*) anormal eta kaltegarri bezala ikusteko joera dago, baina baliabideak urriak direnean gatazka, modu batean edo bestean, ezinbestekoa da. Ustiatzaileak errekurtsioak baino ugariagoak izatea animalia-talde askotan gertatzen den egoera denez, jokaera erasokorrak kultura eta animalia askotan behatu izan dira, eta, beraz, arruntak dira. Hortaz, jokaera agonistikoa zein egoeratan eta nola erabiltzen den, bai eta erabilera honek erasotzaileak zein biktimak bizirik irauteko aukeran duen eragina, izango dira jokaera honen erabilera egokitzaila den ala ez baldintzatuko dutenak. Beraz, agresioa ez da berez eta beti negatiboa; are gehiago, honek funtzio egokitzaila ere izan dezake, animalia guztietan, zenbait testuingurutan (predarien aurka babesteko garaian, bai eta errekurtsio berberak ustiatu behar dituzten banakoen artean ere, e.b.) paper garrantzitsua betetzen du eta. Talde bizitarako arazo larria suposatzen duen neurri berean, jokaera erasokorra arazoaren irtenbidea ere bada.

Esate baterako, amek beren kumea babesteko predarien aurka agertzen duten agresioak espeziearen iraupena ziurtatuko luke. Lurralde bat defendatzeko jokaera erasokorrak, adibidez, espezie bat errekurtsioak (emeak, e.b.) agor ez daitezen modu egokian sakabanatzea ahalbidetuko luke. Borroketan besteak babesteko egoten diren bitartekaritzek kumeak eta taldeko banako ahulenak zauritzea galaraziko lukete. Arren arteko agresioak, berriz, primateen kasuan bereziki, dominantzia-hierarkiak eraikitzea ahalbidetuko luke; eta hauek, era berean, errekurtsioen ustiaketarako banakoen arteko lehentasuna ezartzean, taldea mantentzea ziurtatu eta jokaera erasokor bortitzagoen agerpena galaraziko lukete.

Bestalde, ordea, jokaera agonistikoak taldetan bizi diren banakoentzat hainbat kostu ere baditu, janaria eta kide baliotsuak lortzeko lehiarekin lotutakoak bereziki. Lehia hau jokaera erasokorren bidez adierazi ohi da, eta honek, epe laburrerako

arriskuez gain (zauriak, e.b.), epe luzerako kostu bat ere badauka, taldearen egonkortasuna, eta ondorioz banakoen iraupena ere arriskuan egoten baitira.

Honela, jokaera erasokor jakin bat egokitzailatzat hartzeak ez du esan nahi ondorio onuragarriak soilik dituela; eta jokaera batek izan ditzakeen alde positiboak, eragin ditzakeen kalte fisiko eta sozialekin alderatu beharra dago. Jokaera agonistiko batzuk eraikitzaileak direla esaten denean, beharrezkoa da ondoko puntuak kontuan hartzea:

Lehenengo eta behin, biologikoki “egokitzaila” den jokaera bat ez da zertan izan “ona” kultura jakin bateko gizakientzat.

Gainera, eraso mota batzuk egokitzailatzat jo daitezkeen arren, hau ezin da egoera ezberdinetan gertatzen diren eraso modu berdinetara orokortu, eta are gutxiago eraso modu ezberdinetara. Izan ere, jokaera erasokor guztiak antisozialtzat jotzen dituzten haiek egiten duten akatsaren kontrakoa litzateke. Agresio egokitzaila eta ezegokitzaila *continuum* batean aurkitzen dira sarri.

Azkenik, harreman batean egon daitekeen agresio-maila onargarria zein den baldintzatuko duena zera izango da: batetik, jokaera agonistikoak izan ditzakeen abantailen eta desabantailen arteko oreka; eta, bestetik, honek eragin ditzakeen kalteei aurre egiteko gaitasuna, hau da, nahiz eta noizbehinka gatazkak suertatu, harreman baten alde positiboak mantentzen jarraitzeko gaitasuna. De Waal-en hitzetan (1992), gaitasun honen adierazpen oinarritzkoena, borroka bat amaitu eta berehala, hurbiltasun fisikoa bilatuz, harremana berrezartzea izango litzateke.

Jokaera bat biologikoki egokitzaila izatea baldintzatuko duena, beraz, jokaera hori duen banakoaren eta bere ahaideen iraupenerako eta ugaltzeko aukeretan duen eragina izango da. Kulturak arautzen dituzten irizpide moralak, ordea, ez dira beti aipatutako honekin bat etortzen, nahiz eta ziurrenik biak elkarren menpekoak izan.

### **3. Jokaera agonistikoaren alderdi negatiboak gutxitzeko mekanismoak**

Gorago esan bezala, talde-bizitzak arrisku batzuk izan ditzake kideentzat. Zentzu askotan, aldiz, mesedegarria gertatzen da, taldeak predariengandik babesteko aukera eskaini eta janari iturrien bilaketa eraginkorragoa ahalbidetzen baitu, esate baterako. Beraz, espezie hauek esan den bezain agresiboak balira, talde sozialak hautsi egingo lirateke. Gaur egungo gizartean gai honen inguruan oraindik nagusitzen diren ideien kontra, animalia sozialek ez dute borroka-egarri kontrolagaitza. Baina, beste taldekideen borrokarako gaitasunak, ematen zaion garrantziak, norberak borroka irabazteko dituen aukerek eta antzeko faktoreek jokaera agonistikoak gertatzea eta hauen intentsitatea ere baldintzatzen dute. Are gehiago, gatazka dagoen kasuetan ere, honen ondorio kaltegarriak gutxitzeko mekanismo bereziak garatu direla proposatu izan da.

Honela, bada, argi geratzen da agresioa ez dela gizakien artean soilik gertatzen; baina, halaber, baketze-estrategiak ezin dira kontsideratu gizakiok bakarrik agertzen ditugun jokaera bezala.

### 3.1. Errekontziliazioa

Animaliei buruzko literatura zientifikoan gatazka ondoko 'elkartze' (*affiliative*) jokaeren deskribapen ugari aurki daitezke; gehien bat gizaki ez diren primateen (*nonhuman primates*) kasuan. Jokaera hauek daudela proposatzen zuten lehenengo lanak 60 eta 70eko hamarkadakoak dira, baina hauetan ez zen zehazten aipatutako jokaerak zein banakok agertzen zituen. Hauen esanahia ulertzeko elkarrekintza horietan nork hartzen duen parte jakitea ezinbestekoa da, ordea.

Gatazka ondoko jokaera elkarkorrak bete-betean aztertu zituzten lehenengoak Se Waal eta Van Roosmalen izan ziren, 1979. urtean Arnhem-go zooko txinpantze (*Pan troglodytes*) kolonia batekin egindako lanean hain zuzen ere. Ikertzaile hauek, borroka amaitu eta berehala erasotzailea eta erasotua askotan elkarrengana hurbildu eta harreman fisikoa inplikatzeko zuten elkartze-jokaerak agertzen zizkiotela elkarri ikusi zuten; eta, ondorioz, hauek izendatzeko 'errekontziliazio' (*reconciliation*) hitza erabili zuten. Harreman horiek hasteko, banakoetako batek gonbidapen-adierazpen bat egiten zion besteari, esku-ahurra gora begira zuela besoa luzatuz, eta honi ahoan musukatzeak jarraitzen zion (Aureli eta De Waal, 1998).

Beraz, gatazka ondoko jokaera elkarkorrei ekiten dietenak erasotua eta erasotzailea izan ohi dira sarritan; baina borrokaren lekuko soilak izan diren banakoek 'baketze' prozesuan (*peacemaking*) parte hartzea ere gerta liteke. Honek, alde batetik, erasotua edo erasotzailea ez diren beste banakoentzat ere harremanen berrezarpena onuragarri gerta litekeela adieraziko luke; eta, bestalde, taldekideen arteko harremanen mantentze egokia ziurtatzeko baketze-estrategiak garatu izanak duen garrantzia argi utziko luke.

### 3.2. Bitartekaritza

Gatazka amaitu ondoren, hirugarren batek agertzen dituen jokaerek forma ezberdinak har ditzakete. Esate baterako, de Waal-ek (1993) txinpantze emeek arren arteko jokaera elkarkorrak erraztean betetzen duten papera deskribatzen du:

Borrokatu ziren bi arrak adiskidetzen hasteko gai agertzen ez zirenean, (...) hirugarren batek parte hartzen zuen, eta hau araldian ez zegoen eme heldu bat izaten zen beti. Bitartekaritza (*intervention*) honek itxura ezberdinak har ditzake, (...) baina normalean, gatazka amaitu ondoren, eme bitartekariak, ar batengana zuzendu, eta musukatu edota "garbiketa soziala" (*grooming*) praktikatzeko du denbora batez. Arrak bere genitalak aztertu dizkionean, emeak bestearrengana jotzen du lehenengo arrak jarraitzen diolarik, betiere aurkari-ohiari begiratu gabe. Egoera honetan bakarrik agertzen du txinpantze ar batek araldian ez dagoen eme heldu batekiko interesa, eta ez da inoiz ere ikusi araldian dagoen eme bat bitartekari bezala jokatzeko; ulergarria da hau, arren arteko gatazkarako beste arrazoi bat baino ez bailitzateke izango (164-166. or.)<sup>2</sup>.

---

2. «Cuando ninguno de los dos estaba dispuesto a dar el primer paso para la reconciliación (...) era frecuentemente un tercer individuo el que tenía que intervenir para ayudarles a salir del atolladero. Este tercer individuo era siempre una de las hembras adultas. La intervención de las hembras puede adoptar formas muy diversas. (...) Normalmente, después de que un conflicto entre dos rivales haya tocado a su fin, la hembra mediadora se acerca a uno de ellos y o bien le da un beso, o bien le espulga durante un corto período de tiempo. Después de presentarse al macho y de que éste haya explorado sus genitales, la hembra va andando despacio hacia el otro contrincante. Entonces, el primer macho

Borroka ikusi, baina bertan parte hartu ez duten banakoek, batzuetan, gatazka gehiago gertatzeko probabilitatea gutxitzeko erasotzaile-ohia lasaitzen dute. De Waal-ek halako egoera bat deskribatzen du rhesus tximuetan (*Macaca rhesus*).

Hierarkiako goi-mailako eme batzuek Fawn izeneko eme gazte bat erasotu zuten, honi bortizki koska eginez. (...) Erasoa amaitu zenean, Fawn denbora luzez geratu zen lurrian etzanda, builaka, erabat izuturik, eta bat-batean jeiki eta alde egin zuen. Bakarrik eseri zen (...) eta minutu gutxira bere ahizpa hurbildu zitzaion besarkatzera. (...) Bitartean, euren amak, eraso hasi zuen emearengana gerturatu eta jokaera elkarkorrak zuzendu zizkion, ziurrenik eraso berriak ekiditeko asmoz (De Waal, 1997: 64)<sup>3</sup>.

### 3.3. Kontsolazioa

Beste egoera batzuetan, gatazkaren lekukoak erasotua izan den banakoaren 'herstura' (*distress, anxiety*) gutxitzen saiatzen direla ikusi da. Azken jokaera mota hau De Waal eta Van Roosmalen-ek (1979) deskribatu zuten lehen aldiz eta 'kontsolazio' (*consolation*) bezala ezagutzen da. Errekontziliazio jokaeratik bereizten duena, elkarrekintzan parte hartzen duten banakoen identitatea da; izan ere, errekontziliazioa erasotzaile eta erasotuaren arteko jokaera elkarkorra da. Kontsolazioa, aldiz, «gatazka amaitu eta denbora gutxira erasotuaren eta borrokan parte hartu ez duen banako baten arteko jokaera elkarkor» bezala definitzen da (De Waal eta Van Roosmalen, 1979). Gainera, kontsolazioan jokaera arruntena besarkatzea da eta errekontziliazioan, berriz, musukatzea; beraz, behatzailearen-tzat bi hauen artean ezberdintzea erraza da.

Bi jokaera hauen arteko ezberdintasunak azaltzeko, De Waal-ek (1989) txinpanitze kolonia batean izandako errekontziliazio eta kontsolazio sekuentzia bat ondoko moduan deskribatzen du:

Hennie Nikkie-rengana hurbiltzen da honek bera erasotu ondoren. Hennie-k lehendabizi eskua eskaintzen dio erasotzaileari, honek musu eman diezaion, eta honi ahoan musukatzeak jarraitzen dio (errekontziliazioa). Orduan Hennie Mama-rengana (gatazkaren lekuko izan den koloniako eme zaharrenetako bat) doa eta irrifar urduri bat zuzentzen dio. Mamak eme gaztea kontsolatzen du besarkada batez (40. or.)<sup>4</sup>.

---

suele seguir a la hembra, olisqueando de vez en cuando su vulva, sin mirar en ningún momento a su adversario. (...) En otras situaciones, un macho adulto no seguiría a una hembra que acabara de presentarsele, sobre todo si la hembra no presenta hinchazón sexual. (De hecho, nunca se ha visto a hembras con hinchazón sexual actuar de mediadoras. Y esto es perfectamente comprensible, ya que sólo constituirían un motivo más de disputa entre los rivales.)»

3. «(...) varios miembros adultos de la matrilínea del rango superior atacaron a una joven llamada Fawn, mordiendo con furia a la víctima por los cuatro costados mientras ésta no cesaba de chillar. (...) Cuando sus agresoras por fin se marcharon, Fawn se hallaba presa del pánico. Se pasó un buen rato tumbada boca abajo gritando muy fuerte hasta que, de pronto, se levantó y se fue corriendo. Después se sentó encorvada (...). Al cabo de un par de minutos, se acercó su hermana y la abrazó (...). Las dos hermanas acabaron acurrucadas mientras su madre, quizá con la intención de prevenir más problemas, espulga a la hembra que había iniciado el ataque.»

4. «Hennie, carrying an infant, approaches Nikkie after he has slapped her. Hennie first offers her hand to the aggressor for a hand kiss, after which the two engage in a mouth-to-mouth kiss. Hennie then goes to Mama, who has been watching, and nervously grins at her. Mama consoles the younger female with an embrace.»

Banakoak jokaera hauek (errekontziliazioa eta kontsolazioa) izateko duen motibazioari, eta hauek betetzen duten funtzioari dagokienez bereizten dituzten eta amankomun dauzkaten hainbat ezaugarri garrantzitsu aipa daitezke. Batetik, adiskidetzak erasotua 'larritasuna' (*distress, anxiety*) gutxitzen duela adierazten duten hainbat ikerketa egin dira, eta kontsolazioak ere erasotua lasaitzeko funtzioa betetzea litekeena da; beraz, bi jokaerek funtzio bera beteko lukete: herstura gutxitzea. Bestalde, ordea, errekontziliazioaren kasuan bi banakoek, aurreko gatazkan parte hartu dutelako eta harremana berrezartzeko interesa duten aldetik, ziurrenik antzeko sentimenduak dituzten arren, kontsolazioaren kasuan hau ez da betetzen. Izan ere, kontsolazioa ematen duen banakoak gatazka ondoko egoeratik aldendu eta, inolako ondorio ezkorrik jasan gabe, erasotuaekin kontaktua ekiditeko aukera izango luke; kasu askotan, ordea, lekukoek erasotua laguntzen dutela ikusi izan da.

De Waal eta Aureli-ren (1996) hitzetan, jokaera hau beste baten herstura hautemateak banakoarengan eragiten duen larritasunaren ondorioz gertatuko litzateke eta bi banakoek antzeko barne-egoerak esperimendatuko lituzkete. Dena dela, kontsolazioa bonobo (*Pan paniscus*), txinpantze eta gizakiengan bakarrik behatu dela esan behar da. Honen zergatia, jokaera hau agertzeko errekontziliazioan parte hartzeko baino gaitasun kognitibo garatuagoak behar izatea litekeena da. Izan ere, eta gorago aipatu bezala, errekontziliazioaren kasuan bi parte hartzaileek (aurreko gatazkan parte hartu dutenez) antzeko sentsazioak esperimendatzea litekeena da; kontsolazioa ematen duen banakoak, ordea, aurreko borrokan parte hartu ez duenez, ez luke inolako larritasunik sentituko gatazkaren ondorioak ez bailituzke zuzenean jasango. Beraz, eraso pairatu duenari jokaera elkarkorrek zuzenduko badizkio, beste horren lekuan jartzeko eta hark zer sentitzen duen ulertzeko gaitasuna eduki behar du. Hau guztia kontuan harturik, baketze-jokaera konplexuago honen adibideak primate garatuenetan (hots, bonobo, txinpantze eta gizakietan) soilik aurkitu izana ulergarria litzateke.

#### **4. Sexuaren araberako ezberdintasunak eta enpatia**

Espezie arteko ezberdintasunez gain, elkarrekintza sozialen eta gatazka-konponketaren inguruan burututako ikerketa askok, sexuaren araberako ezberdintasunak ere adierazi dituzte afiliazioari eta jokaera prosozialari dagokionez, bai gizakietan, bai eta beste primateetan ere (Eisenberg eta Lennon, 1983; Hoffman, 1977; De Waal, 1993).

Hauetan guztietan, emeak arrak baino enpatikoago agertu ohi dira (hots, beste banakoaren lekuan jartzeko eta bestearen herstura gutxituko duten jokaerak izateko gaitasun eta joera handiagoa agertzen dute). Hala ere, gizarteratze-prozesuak eta kulturak, batetik, eta determinismo biologikoak, bestetik, sexuaren araberako ezberdintasun hauek zein neurritan azal ditzaketen aztertze orduan, autoreen artean desadostasun handia dago.

Ziurrenik, gizakiok azaltzen ditugun portaera gehienetan bezala, bien eragina egongo da jokaera elkarkorrei dagokienez ere. Dena dela, azpimarratzekoa da ume jaioberriek beraietako baten negarra entzutean negar eginez erantzuten dutela eta jokaera honetan ere sexuaren araberako ezberdintasunak ikusi direla (Zahn-

-Waxler, Radke-Yarrow, Wagner eta Chapman, 1992). Izan ere, aipatutako jokaera bizitzako lehenengo egunean bertan agertzen hasten denez, kasu honetan kulturaren eraginak ez luke diferentzia honentzako azalpen egokirik emango.

Erreakzio hau 'herstura enpatikoa' (*empathic distress*) edo 'kutsadura emozionala' (*emotional contagion*) bezala ezagutzen da eta hainbat ikerketek emeetan maila handiagoan gertatzen dela frogatu dute (Zahn-Waxler et al., 1992). Besteen emozioekiko identifikazio eta sentsibilitate hau zaintze-jokaerak garatu baino askoz lehenago agertzen da eta kognitiboki garatuagoa den laguntza mota baterako oinarri ontogenetikoa izango litzateke, non banakoak: (a) bestearen egoera ulertzeko, (b) bere herstura besterenarengandik bereizteko, eta (c) bestearen ongizatea lortzea helburu duten jokaerak agertzeko gaitasuna duen (Hoffman, 1981; 1987).

«Norberak bere burua beste banako baten egoeran imajinatzeke, edota beste baten egoeran eta sentimenduetan afektiboki parte hartzeke, duen gaitasun garatuago» hau 'enpatia' bezala ezagutzen da (De Waal, 1997), eta primate-espezie askotan emeek gaitasun hau arrek baino garatuago dutela defendatzen duten ikerketa ugari egin da. Hala ere, aipatutako ar eta emeen arteko ezberdintasun hau 'enpatia kognitiboa'-ren kasuan ez dela gertatzen (eta, beraz, bi sexuek euren burua besteen egoeran imajinatzeke gaitasun antzekoa aurkezten dutela) esan beharra dago. Banakoaren larritasuna edo ezinegona desager dadin laguntza aktiboa emateko joera, berriz, emeetan arretan baino handiagoa da. Hoffman-en (1977) hitzetan, emeek bestea laguntzeko joera handiagoa agertzearen zergatia, beste banakoaren egoeran egongo balira nola sentituko liritekeen imajinatzeke gaitasun handiagoa edukitzea izan liteke. Gainera, autore honek dioenez, ezberdintasun hau ez litzateke banakoen adinaren edota erabilitako neurketa-tresnen araberkoa izango.

#### **4.1. Enpatia neurtzeko tresnak**

Gaitasun hau gizakietan aztertzeke neurri ezberdinak erabili izan dira. Autore batzuek haurrek besteen negarraren aurrean izaten duten erreakzioa hartu izan dute enpatian sexuaren araberkoa ezberdintasunak egoten ote diren ikusteko adierazle gisa (e.b.: Hoffman, 1977; Maccoby eta Jacklin, 1974). Ikerketa hauek, beste haur baten negarraren aurrean negar eginez erantzutea bizitzan aurrerago garatuko den enpatiarako gaitasunaren adierazle dela suposatzen dute, eta jokaera honetan sexuaren araberkoa ezberdintasun argiak aurkitu dira.

Ume helduagoekin, ordea, elkarrizketak, argazki eta istorioetan oinarritzen diren teknikak, e.a. izan dira erabilienak (e.b.: Feshbach eta Roe, 1968; Levine eta Hoffman, 1975). Hauetan, haurrari beste banako baten egoera emozional hipotetikoa aurkezten zaio istorio edota argazkien bidez, eta honek berarengan zer sentimendu sortarazten dituen ahoz azal dezan eskatzen zaio. Teknika hauen erabilerak eztabaida ugari eragin du ikertzaileen artean, emaitzen interpretaziorako eta metodologia aldetik hainbat arazo aurkezten baitute (Zahn-Waxler, et al., 1992).

Alde batetik, heldu batek haurrari behin eta berriz nola sentitzen den galdetzeak ez dirudi umearen enpatia neurtzeko oso teknika baliagarria. Bestalde, litekeena da tresna gisa erabiltzen diren istorio laburrak umearengan enpatia

eragiteko egokiak ez izatea (haurra ez baita egoera erreal baten aurrean aurkitzen). Gainera, teknika hauen erabileran arazo metodologikoak daudela dirudi, izan ere, sexuaren arabera ezberdintasunak subjektuaren eta elkarrizketa-tzailearen sexuen arteko elkarrekintzarekin nahasten direla uste da. Hots, teknika hauek erabiliz neskek enpatiarako joera handiagoa agertzen zutela ondorioztatu zuten ikertzaile gehienak emakumeak ziren; mutilek enpatiarako joeran puntuazio altuagoak lortu zituzten kasu guztietan, berriz, elkarrizketa-tzaileak gizonezkoak ziren. Beraz, aipatutako guztiak teknika hauek erabiliz lortutako emaitzen fidagarritasuna zalantzan jarriko luke.

Are gehiago, eta azken teknika hauek fidagarriak balira ere, enpatia beste primategian behatzerakoan arazo nagusi bat agertzen da: hauekin behagarriak eta neurgarriak diren jokaerak soilik erabil daitezkeela. Gizakien enpatia neurtzeko jokaera behagarriak kontuan hartu dituzten ikertzaileak gutxi badira ere, Zahn-Waxler eta lankideek (1992) egiten duten sailkapena aipagarria da:

Jokaera prosoziala: biktima laguntzeko, estresa eragiten duen egoera aldatzeko edota herstura gutxitzeko saiakerak. Jokaera zehatzak:

- Biktima lasaitzeko saiakera fisikoak: besarkatu, musukatu, laztandu.
- Hitzeko saiakerak (e.b.: “ondo al zaude?”).
- Aholkuak (e.b.: “kontuz ibili”).
- Laguntza zuzena edota zeharkakoa (e.b.: biktima lagunduko duen pertsona heldu bat ekarri).
- Elkarrengandik banatzea.
- Biktima distraitzea.
- Babesa: biktima erasotua, zauritua,... izatea galarazi.

Ardura enpatikoa: besteenganako ardura azaltzen duen emozionalitatea, aurpegi (tristura espresioa) edo ahozko (e.b.: “sentitzen dut”) adierazpenen bidez agertuak.

Hipotesiak frogatzea: hitzez (e.b.: “zer gertatu da ?”) edo ez-hitzez (adib.: banakoa zauritua izan den zonaldea eta zauria eragin dion objektua begiratzea behin eta berriro).

Norbera erreferentetzat duten jokaerak: besteak bere ondoeza adierazteko erabiltzen dituen jokaerak imitatzea.

Herstura-sentimenduak: bestearen larritasunak eragindako intentsitate handiko emozio negatiboak, besteenganako ardura baino gehiago norberaren herstura adierazten dutenak; e.b.: negar egitea.

Jokaera erasokorrak: erasotuekiko agresibitatea edo-eta haserrea adieraztea; e.b.: bultzatzea, jotzea, oihu egitea.

Afektu positiboa: egoera hersturatzailean irrifarrea erakutsi edo barre egitea.

Jokaera prosozialen barnean, arrisku edo gatazka egoeretan ahaide ez den banako bati eskaintzen zaion laguntza mota honi 'laguntza-jokaera' deritzo eta De Waalen arabera (1997) gizakiongan 'sinpatia' (beste baten egoera emozionalaren aurrean emandako erantzun afektiboa —Eisenberg; Fabes; Miller; Fultz; Shell; Mathy; eta Reno, 1989; Eisenberg eta Lennon, 1983—) bezala ezagutzen denaren baliokide funtzionala litzateke. Enpatiatik bereizten duena zera da: azken honen helburua beste banakoaren mina haintzat hartua eta ulertzea dela, eta sinpatiaen helburua, berriz, bestearen ongizatea lortzea.

Dena den, eta emeek enpatiarako joera handiagoa agertzen duten bezala, arretan ere behatu dira sexu-talde honen adierazgarri diren jokaerak. Ade batetik, arrek jokaera erasokor gehiago eta agresibitaterako joera handiagoa agertzen dutela defendatzen duten ikerketa ugari egin da, bai gizakietan, bai eta beste primate-espezietan ere (Dawe, 1934; Waterhouse eta Waterhouse, 1973; Maccoby eta Jacklin, 1974; Smith eta Green, 1975; De Waal, 1997). Bestalde, errekonziliazio-jokaera ere arretan emeetan baino maiztasun handiagoz agertzen dela frogatu da espezie ezberdinetan; e.b.: txinpantze, *rhesus* tximu eta abarren artean (De Waal, 1989).

Haurretan, azken jokaera elkarkor honi dagokionez sexuaren araberako ezberdintasunak badaude ere, hauek beste primateetan agertzen direnetatik bereizten dira. Izan ere, alde batetik, mutilen zein nesken arteko gatazketan (hots, mutil/mutil edo neska/neska) antzeko maiztasunez errekonziliatzen dira (lehenengoen aldeko diferentzia txiki bat agertzen den arren); borroka sexu ezberdineko banakoen artean (hots, neska/mutil) izan bada, aldiz, errekonziliazioa izateko probabilitatea txikiagoa da. Hau ez da harrizkoa, jakina baita umeek sexu bereko jolaskideak nahiago izaten dituztela, eta beraz, hauekin harreman onak mantentzea eta kaltetutakoak berrezartzea garrantzitsua dela.

Bai gizakietan, bai eta beste primate-gizarteetan ere, elkarrekintzetan jokaera elkarkor zein erasokorre dagokienez sexuaren araberako ezberdintasun hauek egoten direla jakinda, erantzun beharreko hurrengo galdera zera litzateke: zergatik ematen dira aipatutako ezberdintasunak? Zergatik dira arrak emeak baino erasokorragoak, eta zergatik agertzen dute emeek enpatiarako joera handiagoa arrekin alderatuz? Sexu-talde bakoitzak azaltzen dituen jokaera-patroi bereziek euren arrakasta (soziala, sexuala, eta bizirik izautea, azken batean) ahalbidetzen al dute?

#### **4.2. Sexuaren araberako ezberdintasunen zergati posibleak**

Lehenago esandako guztia kontuan hartuta, litekeena da mutilek eta neskek joku ezberdinetan jolastea, sare sozial ezberdinak eraikitzea eta moralitate kontzeptu ezberdinak garatzea, gerora gizarteak landu eta moldatuko dituen diferentzia psikologikoekin jaiotzearen ondorioa izatea. Zentzu honetan, beraz, kulturak eta hezkuntzak predisposizio genetikoetan izango lukete eragina.

Gainera, sexuaren araberako ezberdintasun hauek hainbat primate-espezietan behatu badira, eta gizarteak hezkuntzaren bitartez (emei sentikorrek izaten irakatsiz eta mutilak lehiara bultzatuz) diferentzia hauek indartzeko joera agertzen badu, ebolutiboki egokitzaila izan delako garatu direla suposa daiteke.

Alde batetik, eta emeen kasuan, zaintzaile enpatikoak (ez bakarrik besteak zer sentitzen duen imajina dezaketen zaintzaileak, baizik eta sentimendu kaltegarri horiek desager daitezzen zerbait egiteko prest daudenak) edukitzea mesedegarria gerta daiteke kumeek herstura eta larritasuna eragiten duten egoeretan segurtasun eta lasaitasun iturri bat eskuragarri izan dezaketen aldetik. Bestalde, jakina denez, ugaztunen eboluzio-prozesu luzean zehar kumeen zaintzaz arduratu dena ama izan da. Honela, bada, emeak afiliatiboak izatea onuragarria litzateke bai beren kumeen ongizaterako, bai eta, azken batean, espeziearen beraren iraupenerako ere.

Honekin loturik, Zahn-Waxler eta lankideek 1992an gizakiekin egindako ikerketan adierazten dutenez, enpatiarako gaitasun hau, emeak geroago beteko duten zaintzaile funtziorako prestatuko litzuzkeen eta oinarri biologikoa lukeen predisposizio baten adierazle litzateke. Modu berean, de Waal eta Aurelik ere, 1997an txinpantzeekin egindako ikerketa batean zera proposatzen dute, espezie honek eboluzioan zehar besteengan herstura sentimenduak gutxitzeko garatu dituen jokaera-patroi zehatzak ziurrenik amek euren kumeak lasaitzeko agertzen dituztenetatik eratorriak direla.

Beraz, baliteke arrek beren kumeen amak izateko eme enpatikoenak, hots, kontsolazio handiena eskaintzen dutenak, aukeratzea (ondorioz eme kontsolatzaileenek arrakasta sexual handiagoa izango lukete). Gainera, litekeena da emeek kontsolazioa arrakasta sozialerako tresna moduan erabiltzea. De Waal-ek (1997) dioen bezala, taldekide guztiei interesatuko litzazieke beren gizartea ona eta sendoa izatea, eta gertatzen diren gatazkak (gehienbat maila altuko banakoen artekoak) guztien kaltetan gertatuko lirateke, ez borrokan parte hartzen duten banakoen kaltetan soilik. Beraz, banako guztiak arduratzen dira beren ongizatea ziurtatzen duen giza ingurunearen kalitateaz; eta, bakoitza bere interes pertsonalak asetzeko, bizi den ingurunea hobetzen saiatzen den neurrian, besteak ere lagunduko ditu, honela taldekide guztiak bakoitzaren ekintzen ondorio kaltegarri eta onuragarriak jasoz.

Gizartearen ardura modu ezberdinetan adieraz daiteke, eta hauetako bat beste kideen arteko harremanak norberaren onurarako hobetzen saiatzean datza. Hau da, hain zuzen, bitartekariak egiten dutena, eta De Waal-en iritziz (1997), harreman onak bultzatzeko sistema hau zenbat eta garatuago egon, banakoaren eta komunitatearen helburuen arteko adostasuna ere orduan eta handiagoa izango da. Honela, bada, sistema honetan mesedearen ordaina ez litzateke zertan izangogo berehalakoa eta zuzena. Hau da, banako batek beste bati egindako mesedea hirugarren batek saritua izan daiteke, lehenengo banakoari beste mesede bat bueltatuz.

Ondorioz, argi geratzen da komunitate hauetan banakoek egiten dituzten ekintzak bezain garrantzitsuak dela taldekideek ekintza horiei buruz duten iritzia. Beraz, taldekideek norbait egoera estresagarri batean ikustean banako batek nola jokatzeko duen kontuan hartzen badute, erraz jakingo dute nor dagoen egoera horietan laguntza eskaintzeko prest eta nor ez, eta komunitatea bera (eta ez laguntza jaso duen banakoa soilik) izango da laguntza-jokaera hori sarituko duena, beharbada beste mota bateko mesedeak eginez.

Bestalde, eta mutilei dagokienez, litekeena da eboluzioan zehar, maila batean behintzat, erasokor agertzea egokitzaila gertatu izana. Izan ere, ar batek, jokaera agonistikoak azalduz, une jakin batean bere kumeak defendatzearen borrokatze-ko prest egongo litzatekeela adieraz lezake; edo errekurtsioak ustiatzeko (eta beraz emeak lortzeko) hierarkian maila sozial egokia eskuratzeko aukera izango luke, esate baterako.

Gizonezkoen ikuspegi morala arauetan eta autoritatean oinarriturik, eta dominantzia-sistema baten ezarpenera bideratua egongo litzateke. Zentzu honetan, hierarkia bat ezartzeak jokaera erasokor bortitzagoen agerpena ekiditen duela frogatu du hainbat ikertzailek (La Frenière eta Charlesworth, 1983; Strayer, 1992). Gizonak elkartzen direnean harreman hierarkikoak berehala eraikitzen dira eta, lehiaren ondorio zuzena izan arren, de Waal-en arabera (1997), hierarkia elkarlan eta integraziorako tresna bat izango litzateke arrentzat. Honela, beraiantzat borroka, elkar aztertze, erlazionatzeko eta adiskide bihurtzeko modu bat ere izan daiteke. Gatazken elkarze-funtzio hau, ordea, ezezaguna gertatzen zaie emeei, hauek borroka harremanak kaltetzen dituen zerbait bezala ikusten baitute.

Errekontziliaziorako joerari dagokionez, hau arretan handiagoa izatea ere ulergarria gerta daiteke. Izan ere, alde batetik primate-espezie gehienetan emeek bizitza bakartiagoa baitaramate, beren kumeekin eta lagun gutxi batzuekin harremana mantenduz. Bestalde, arrek, oso kompetitiboa den koalizio malguen sistema batean, kontaktuan egon behar dute, bai lagunekin, bai eta etsaiekin ere. Gainera, baliteke harremanak berrezartzeko ahaleginak hierarkiaren goi-mailan soilik ematea, hor kalteak eragiteko arriskua handiagoa baita; eta primate-espezie gehienetan maiz goi-mailan arrak aurkitzen direnez, honek azalduko litzateke errekontziliaziorako joerari dagokionez aurkitu diren sexuaren araberrako ezberdintasunak.

Gorago aipatu bezala, haurretan ezberdintasun hau ez da hain nabarmena, baina kontuan hartu behar da gure gizartean (a) neskek ez dutela mutilek baino bizitza bakartiagoa eta bi sexu-taldeek harreman sozial aberatsak izan ditzaketela; eta (b) hierarkiak ez daudela hain ondo zehaztuta eta goi-mailan neskak zein mutilak aurki daitezkeela.

Hau guztia kontuan izanik, orduan, maila honetan ez ginateke moralitate kontzeptu ezberdinez arituko. Aldiz, arrentzat zein emeentzat eboluzioan zehar egokitzailak suertatu diren oinarri psikologiko ezberdinak alderatzen arituko ginateke.

Dena dela, eta jokaera erasokorrak zenbait testuingurutan gizakion artean ere funtzio egokitzaila bete dezakeen arren, ondorio kaltegarri batzuk ere izan ditzakeela ukazina da. Horregatik, erantzun beharreko beste galdera bat sortzen da, haur txikien hezkuntzari dagokienez behinik behin: irakasleek umeen arteko gatazketan bitartekari moduan jokatzeko zein neurritan da egokia? Zilegi al da haurrei beren kabuz konpontzen ahalbidetzea? Zein kasutan?

De Waal-en hitzetan (1989: 255-256), haurrek ez dute behartutako barkamenean sinisten, eta umeak aurkari-ohiarekin errekontziliaziora sarritan adierazi ohi dute gorrotatu egiten dutela irakasleek bultzatzea. Gainera, galdera hauei

erantzuten saiatuz, autore honek bi makako-espezie alderatzen ditu: buztan laburreko makakoak (*Macaca arctoides*) eta *rhesus* tximuak hain zuzen ere. *Rhesus*-espezieko amek beren kumeen arteko borroketan bitartekari papera betetzen dute askotan. Buztan laburreko tximuek, aldiz, eraso oso bortitza ez den heinean, kumeei beren kasa jolasten, borrokatzen, eta errekontziliatzen uzten diete. Jakina denez, heldutan buztan laburreko makakoak *rhesus* tximuak baino askoz ere trebeagoak dira gatazken konponketetan. Txikitan jasotako hezkuntza, heldutan bi espezieen artean behatu den ezberdintasunaren arrazoi izan al daiteke?

Haurren kasuan ere, irakasle zein zaintzaileek, eraso bortitzearen prebentzioaren eta gehiegizko bitartekaritzaren edo babesaren arteko oreka aurkitzea beharrezkoa da. Izan ere, irakasleek borrokak berez amaitu baino lehen eteten badituzte, haurrek ez dute baketze-prozesuak bideratzen dituzten estrategiak eta arauak ikasteko aukerarik izango. Are gehiago, gaiaren inguruan burututako hainbat ikerketek adierazten dutenez, irakasleen ekintza hauek eskola amaitu ondoren eraso berriak besterik ez lukete eragingo (De Waal, 1989: 255-256).

## 5. Ondorioak

Agresioa egokitzailea zein negatiboa izan daiteke; harremanen berezko alderdi bat izan eta, aldi berean, hauek kaltetu ditzakeena. Agresioari buruzko ikuspegi gehienek ez dituzte oinarrizko ezberdintasun hauek kontuan hartzen, izan ere, gehiegizko edo muturretako agresio-adierazpenak soilik aztertzen baitituzte, hau testuinguru sozialetik isolatuz. Are gehiago, jokaera agonistikoek moralitatearekin duten harremana dela eta, gaur egun oraindik ere ez dira jokaera honen zergatia eta funtzioa azaltzen duten lan zientifikoak batera sustatzen.

Dena dela, azken hamarkadetan, hainbat ikertzailek agresioaren alderdi negatiboak ekiditeko eta harremanak berrezartzeko hainbat jokaera-mekanismo badagoela frogatu du primate-espezie ezberdinetan. Mekanismo hauek jokaera erasokorra harremanen berezko alderdi bat izatea ahalbidetzen dute eta hau testuinguru sozialetik kanpo aztertzea zentzugabea litzateke. Agresioa gatazkek adierazi eta konpontzeko bide baten moduan ulertu beharra dago, etorkizunerako harremanetan eduki ditzakeen ondorioek kaltegarritik onuragarri izaterainoko *continuum* bat osatzen dutela onartuz.

Behatutako agresioaren 'egokitasun maila' (*adaptiveness*) modu erreala goan aztertzeke, honen ondorioak erabateko bake egoera utopikoarekin alderatu ordez, mugagabeko lehiaren eragin hipotetikoarekin alderatu beharko liriateke.

Gizaki ez diren primateetan gatazken konponketaren inguruan burutu diren azken lanek hurbilketa egokiagoa eskaintzen dute. Baketze-mekanismoak arrazoiaren eta instintuaren arteko lehiaren lehenaren garapen moduan, edo gizakion asmakizun gisa hartu beharrean, burututako ikerketei esker eremu honetan ere beste animalien eta gizakion artean jarraitasun bat bilatzeko aukera dago orain. Horretarako, ordea, jokaeraren ikerketan hurbilketa indibidualista batetik, banakoen arteko harremanak aztertu eta agresioaren alderdi ezkorrek ekiditen dituzten mekanismoak kontuan hartuko dituen ikuspegi batera igarotzea guztiz beharrezkoa da.

## Erreferentzia bibliografikoak

- Aureli, F. eta De Waal, F. B. M. (1997): "Inhibition of Social Behavior in Chimpanzees Under High Density Conditions", *American Journal of Primatology* **41**, 213-228.
- , (1998): "Peacemaking in Primates", in G. Greenberg eta M. Haraway (arg.), *Comparative Psychology: A Handbook*, Garland Publishing, New York, 720-724.
- Brain, P.F. (1981): "Differentiating types of attack and defense in rodents", in P.F. Brain eta D. Benton (arg.), *Multidisciplinary approaches to aggression research*, Elsevier, Amsterdam, 53-58.
- , (1984): "Comments on laboratory-based aggression tests", *Animal Behaviour* **32** (4).
- Dawe, H. (1934): "An analysis of 200 quarrels of pre-school children", *Child Development* **5**, 139-157.
- Eisenberg, N.; Fabes, R.A.; Miller, P.A.; Fultz, J.; Shell, R.; Mathy, R.M.; eta Reno, R.R. (1989): "Relation of Sympathy and Personal Distress to Prosocial Behavior: A Multimethod Study", *Journal of Personality and Social Psychology* **57** (1), 55-66.
- Eisenberg, N. eta Lennon, R. (1983): "Sex Differences in Empathy and Related Capacities", *Psychological Bulletin* **94** (1), 100-131.
- Fedigan, L.M. (1982): *Primate Paradigms*, Eden Press, Montreal.
- Feshbach, N.D. eta Roe, K. (1968): "Empathy in six and seven year olds", *Child Development* **39**, 133-145.
- Hoffman, M.L. (1977): "Sex Differences in Empathy and Related Behaviors", *Psychological Bulletin* **84** (4), 712-722.
- , (1981): "Perspectives on the difference between understanding people and understanding things: The role of affect", in J.H. Flavell eta L. Ross (arg.), *Social Cognitive Development*, Cambridge University Press, Cambridge, 67-81.
- , (1987): "The contribution of empathy to justice and moral judgment", in N. Eisenberg eta J. Strayer (arg.), *Empathy and Its Development*, Cambridge University Press, Cambridge, 47-80.
- Huntingford, F. (1984): *The study of animal behavior*, Chapman and Hall, London.
- LaFrenière, P.J. eta W.R. Charlesworth (1983). "Dominance, affiliation and attention in a preschool group: a nine-month longitudinal study", *Ethology and Sociobiology* **4**, 66-67.
- Lauer, C. (1992): "Variability in Patterns of Agonistic Behavior of Preschool Children", in J. Silverg eta J.P. Gray (arg.), *Aggression and Peacefulness in Humans and Other Primates*, Oxford University Press, New York, 172-188.
- Levine, L.E. eta Hoffman, M.L. (1975): "Empathy and cooperation in 4-year-olds", *Developmental Psychology* **4**, 533-534.
- Maccoby E.E. eta Jacklin, C.N. (1974): *The psychology of sex differences*, Stanford University Press, Stanford.
- Moyer, K.E. (1968): "Kinds of aggression and their physiological basis", in *Communications in Behavioral Biology* **2**, 65-87.
- , (1976): *The psychobiology of aggression*, Carnegie Mellon University: Harper and Row Publications, New York.
- Rasa, O.A.E. (1981): "Ethological aspects of aggression in subhuman animals", in P.F. Brain eta D. Benton (arg.), *The biology of aggression*, Sijthoff and Noordhoff, Amsterdam, 585-601.
- Reis, D.J. (1971): "Brain monoamines in aggression and sleep", *Clinical Neurosurgery* **18**, 471-502.
- , (1974): "Consideration of some problems encountered in relating specific neurotransmitters to specific behavior or disease", *Journal of Psychiatric Research* **11**, 145-148.

- Smith, P. eta Green, M. (1975): "Aggressive behavior in English nurseries and play groups: Sex differences and response of adults", *Child Development* **46**, 211-214.
- Strayer, F.F. (1992): "The development of agonistic and affiliative structures in preschool play groups", in J. Silverg eta J.P. Gray (arg.), *Aggression and Peacefulness in Humans and Other Primates*, Oxford University Press, New York, 150-171.
- Usrin, H. (1981): "Neuroanatomical bases of aggression", in P.F. Brain eta D. Benton (arg.), *Multidisciplinary approaches to aggression research*, Elsevier, Amsterdam, 269-293.
- Valzelli, L. (1983): *Psicobiología de la agresión y de la violencia*, Alhambra, Madril.
- De Waal, F.B.M. (1989): *Peacemaking Among Primates*, Harvard University Press, Cambridge, MA.
- , (1992): "Aggression as a Well-integrated Part of Primate Social Relationships: A Critique of the Seville Statement on Violence", in J. Silverg eta J. P. Gray (arg.), *Aggression and Peacefulness in Humans and Other Primates*, Oxford University Press, New York, 37-56.
- , (1993): *La Política de los Chimpancés*, (Originala: *Chimpanzee Politics*, 1982), Alianza Ed., Madril.
- , (1996): "Conflict as Negotiation", in W.C. McGrew et al. (arg.), *Great Ape Societies*, Cambridge University Press, Cambridge, UK, 159-172.
- , (1997): *Bien Natural*, (Originala: *Good Natured*, 1996), Herder, S.A., Bartzelona.
- , eta Aureli, F. (1996): "Consolation, reconciliation, and a possible cognitive difference between macaques and chimpanzees", in A.E. Russon, K.A. Bard eta S.P. Mendoza (arg.), *Reaching into thought: The minds of the great apes*, Cambridge University Press, Cambridge, 80-110.
- , (1997): "Conflict Resolution and Distress Alleviation in Monkeys and Apes. The integrative neurobiology of affiliation" in Carter, Carol Sue; Lederhendler, I. Izja; et al. (arg.), *Annals of The New York Academy of Sciences Vol. 807*, New York Academy of Sciences, New York, USA, 317-328.
- eta van Roosmalen, A. (1979): "Reconciliation and consolation among chimpanzees", *Behavioral Ecology and Sociobiology* **5**, 55-66.
- Waterhouse, M. eta Waterhouse, H. (1973): "Primate ethology and human social behavior", in R. Michael eta J. Crook (arg.), *Comparative Ecology and Behavior of Primates*, Academic Press, New York, 669-688.
- Wilson, E.O. (1975): *Sociobiology, The New Synthesis*, Harvard University Press, Cambridge.
- Zahn-Waxler, C. et al. (1992): "Development of Concern for Others", *Developmental Psychology* **28 (1)**, 126-136.